Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3292

EBAZPENA, 2010eko martxoaren 8a, Energia eta Meategien zuzendariarena, ondoren zehaztuko den airetiko linea elektrikoaren zuhaitz-zerrenda eta deribazioak handitzeko instalazioak baimendu, proiektua onartu eta herri-onurakotzat jotzeko dena: Elgoibar-Lasao 30 kV-ko aireko linea elektrikoa, Elgoibar TA eta Lasao TAren artekoa, eta Floreaga TBA, Construcciones Izarraitz TZ, Loiola TBA, Azkue TA, Ibai-Eder TA eta Lasaoko Industrialderako deribazioak (udalerriak: Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia eta Zestoa).

Erref.: 24032/AT-H-2008-177.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoan, Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk eskatuta (egoitza: Donostiako Mikeletegi pasealekua 1, 3.a), Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako udalerrietan, aipatutako zuhaitz-zerrenda handitzeko administrazio-baimena ematea, exekuzio-proiektua onartzea eta herri-onurakotzat jotzea eskatzeko hasitako espedientea ikusi da.

Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako udalei jakinarazita, euren oniritzia eman zioten aurkeztutako proiektuari eta zenbat baldintza ezarri zituzten.

Espedientea jendaurrean jartzeko betebeharra konplitu zen 2009ko ekainaren 23ko EHAAn, 2009ko ekainaren 4ko GAOn eta 2009ko ekainaren 3ko «El Diario Vasco» egunkarian argitaratuta. Ondoren, alegazio-idazki bat aurkeztu zen, ondokoek izenpetuta: Francisca Altuna Zubizarreta, José M.ª Astorquia Ibarluce, M.ª Pilar Arambarri Echaniz, Martín Zubizarreta Astigarraga, M.ª Isabel Alberdi Astigarraga (Ignacio Alberdi Astigarraga jaunaren ordez) eta Cándido Manuel Arambarri Zubizarreta jaun-andreek.

Aurkeztutako alegazioetan, labur bilduz, ondokoa adierazten zen:

– Izapide honen hasieran zenbait eragozpen aurkeztu zirela kontuan hartuta, ez dute ulertzen zergatik eman ziren bukatutzat elkarrizketak, aurkeztutako eragozpen horiek sakon aztertu gabe; eta, are gehiago, kontuan hartzen bada, antzeko beste egoera batean akordio egokia lortu zela.

– Euren iritziz, gutxienez ondorio praktikoetarako, orain arte hainbat handitze egin izan dira eta, horregatik, ez daude erabat ados hasieran planteatu

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

3292

RESOLUCIÓN de 8 de marzo de 2010, del Director de Energía y Minas, por la que se autorizan las instalaciones, se aprueba el proyecto y se declara la utilidad pública para la ampliación de la faja de arbolado de la línea eléctrica aérea a 30 kV Elgoibar-Lasao, entre la S.T. Elgoibar y la S.T. Lasao y las derivaciones a S.T.R. Floreaga, a C.T. Construcciones Izarraitz, a S.T.R. Loiola, a S.T. Azkue, a S.T. Ibai-Eder y a Lasaoko Industrialdea, en los términos municipales de Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia y Zestoa.

Ref.ª.: 24032/AT-H-2008-177.

Visto el expediente incoado en la Delegación Territorial de Gipuzkoa, del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, del Gobierno Vasco, a petición de la empresa Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U., con domicilio en Donostia, P.º Mikeletegi 1-3.º, solicitando autorización administrativa, aprobación del proyecto de ejecución y declaración de utilidad pública, para la ampliación de la faja de arbolado de referencia, en los términos municipales de Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia y Zestoa.

Resultando que notificados los Ayuntamientos de Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia y Zestoa, manifestaron su conformidad al Proyecto presentado, imponiendo una serie de condicionados.

Resultando que sometido el expediente a la preceptiva información pública con publicación en el BOPV de 23-06-2009, en el BOG de 04-06-2009 y en «El Diario Vasco» de 03-06-2009, se presentó un escrito de alegaciones firmado por D.ª Francisca Altuna Zubizarreta, D. José M.ª Astorquia Ibarluce, D.ª M.ª Pilar Arambarri Echaniz, D. Martín Zubizarreta Astigarraga, D.ª M.ª Isabel Alberdi Astigarraga (en representación de D. Ignacio Alberdi Astigarraga) y D. Cándido Manuel Arambarri Zubizarreta.

Resultando que en las alegaciones presentadas se manifestaba en extracto:

– Que al inicio de este trámite se plantearon algunas objeciones y que no se comprende por qué se finiquitaron las conversaciones sin haber profundizado en las cuestiones planteadas cuando en un caso análogo se ha alcanzado un acuerdo satisfactorio.

– Que están convencidos que a efectos prácticos, al menos, ha habido ampliaciones sucesivas, por lo que expresan sus reservas respecto de las superficies

diren azalerekin. Hortaz, ezinbestekotzat jotzen dute hasierako azalera horiek egungo errealitatearekin bat datozen ala ez egiaztatzea.

– Espedientean ezarritakoaren arabera, egun dagoen helgal edo egurraren gainean bakar-bakarrik jardungo da, baina ez da inon ere zehazten landaketa berririk egin ahal izango den ala ez.

Elgoibar eta Zestoako Udalek jarritako baldintzak Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresa eskatzaileari jakinarazita, beronek baldintza horiek onartu egiten zituela erantzun zuen.

Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresa eskatzaileari jakinarazi zaizkio aurkeztutako alegazioak, ondoko hauek egindakoak: Francisca Altuna Zubizarreta, José M.ª Astorquia Ibarluce, M.ª Pilar Arambarri Echaniz, Martín Zubizarreta Astigarraga, M.ª Isabel Alberdi Astigarraga (Ignacio Alberdi Astigarraga jaunaren ordez) eta Cándido Manuel Arambarri Zubizarreta jaun-andreek. Enpresak honako hau erantzun zuen:

– Iberdrolak ez du bide-zor batean handitze-lanik egiten, eragindako ondasunaren jabea jakitun jarri gabe eta beronen adostasuna izan gabe. Hala ere, egoera argitze aldera, enpresaren ustez komenigarria da tokian bertan ikuskapena egitea, jabeek eskatzen duten moduan.

– Eragindako azalerak kalkulatzeko eta ondorengo balorazioa egiteko, lehenengo eta behin kontuan hartzen da zein diren arboladiak dituzten eta, gainera, linea elektriko baten eraginpean dauden lur-sailak, non lehendik bide-zorra eginda eta kalte-ordaina ordainduta zegoen.

– Bestalde, kalte-ordaina behar bezala zehazteko, zuhaitz-zerrenda handitzeko behar diren metro koadroak bakarrik hartzen dira kontuan, baina inola ere ez da kalte-ordainik emango lehendik ezarrita dagoen bide-zor batengatik, ez eta zuhaitzik ez dagoen lursailengatik ere.

– Partzelen mugak ezartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Katastrotik jasotako informazioa baino ez du erabili enpresak.

– Kalte-ordainaren balorazioa peritu agronomo batek ezartzen du, kontuan hartuz, aldez aurretik, taula Gipuzkoako Forestalisten Elkarteak prestatzen duela.

– Lineako eroaleek lur-sailean duten proiekzioaren barruan dagoen bide-zorrean ez da inolako landaredirik egongo, hain zuzen ere, instalazioan aurrerago egin beharreko mantentze-lanak errazteko.

– Lineako muturreko eroalearen eta babeseremuaren bukaeraren artean dagoen bide-zorrean, zuhaitzak landatzea mugatuta egongo da, eta eraiciales planteadas. Que se considera imprescindible cotejar si las mencionadas superficies de origen se ajustan o no a la realidad actual.

– Que el expediente indica que se pretende actuar única y exclusivamente en relación al vuelo o madera existente; sin especificar en ningún caso si va resultar factible realizar nuevas plantaciones.

Resultando que habiendo dado traslado de los condicionados impuestos por los Ayuntamientos de Elgoibar y Zestoa a la empresa peticionaria Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U., ésta contestó que aceptaba dichos condicionados.

Resultando que habiendo dado traslado de las alegaciones efectuadas por D.ª Francisca Altuna Zubizarreta, D. José M.ª Astorquia Ibarluce, D.ª M.ª Pilar Arambarri Echaniz, D. Martín Zubizarreta Astigarraga, D.ª M.ª Isabel Alberdi Astigarraga (en representación de D. Ignacio Alberdi Astigarraga) y D. Cándido Manuel Arambarri Zubizarreta a la empresa peticionaria Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U., ésta contestó a las mismas manifestando lo siguiente:

– Que Iberdrola no realiza ampliaciones de servidumbre sin previo conocimiento y consenso del propietario del bien afectado; No obstante y con el fin de aclarar la situación se cree oportuno realizar una inspección sobre el terreno, tal y como solicitan los propietarios.

– Que a la hora de obtener el cálculo de superficies afectadas y posterior valoración, en primer lugar, se tienen en cuenta los terrenos en los que en la actualidad haya plantada masa arbórea y además se encuentren afectados por una línea eléctrica, cuya servidumbre ya había sido establecida e indemnizada en su momento.

– Que por otro lado, a la hora de establecer la indemnización pertinente, se computan únicamente los m² de ampliación de faja de arbolado, en ningún caso se indemnizará la servidumbre antiguamente establecida, ni los terrenos en los que no exista plantación de árboles.

– Que para establecer los lindes de las parcelas se atienen a la información que obra en su poder, obtenida del Catastro de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

– Que la valoración de la indemnización la establece un Perito Agrónomo competente, teniendo en cuenta la tabla que confecciona la Asociación de Forestalitas de Gipuzkoa.

– Que la zona de servidumbre comprendida entre la proyección sobre el terreno de los conductores de la línea, deberá permanecer libre de todo tipo de plantación, con objeto de facilitar los futuros trabajos de mantenimiento en la instalación.

– Que en la zona de servidumbre comprendida entre el conductor más extremo de la línea y el final de la zona de protección, estará limitada la plantación

bat debekatuko da bertan eraikinak eta industria-instalazioak eraikitzea. Inguru horretan baimenduta egongo da baratzak eta mahastiak landatzea, bai eta tamaina txikiko zuhaitzak ere, hau da, eroaleetatik gehienez 5 metrora hazten diren zuhaitzak, bai horizontalean (adarrak), bai bertikalean (adaburua).

Aurkeztutako proiektuan jasotakoak ikusi dira. Arabako Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofizialeko kide Joseba Sáez de Vicuña Díez ingeniari tekniko industrialak (1686 zenbakia) izenpetu zuen proiektua, eta elkargo horrek berak 2008-08-07an bisatu zuen, 025845 zenbakiaz.

Honako lege-xedapenak ikusi dira: Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea (1997-11-28ko BOE); abenduaren 3ko 282/2002 Dekretua (2002-12-23ko EHAA), honako instalazio hauek eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio-baimenerako prozedurak arautzen dituena: argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak, bai eta kontsumitzaileak konektatzeko hartuneak, zuzeneko lineak eta instalazioak ere; goi-tentsioko aireko linea elektrikoei buruzko erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 3151/1968 Dekretua (1968-12-27ko BOE); Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamendua (1957-06-20ko BOE) eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Energia eta Meategien zuzendariaren 2007ko urtarrilaren 29ko Ebazpena (2007-05-04ko EHAA).

Kontuan izanik, Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresa eskabidegileak, eraginpekoek egindako alegazioei egoki erantzun diela.

Energia eta Meategien zuzendariak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan (2009ko irailaren 24ko EHAA) aitortzen zaizkion eskumenez baliatuz,

EBATZI DU:

1.– Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresari instalazioa egiteko baimena ematea eta exekuzio-proiektua onartzea, ondoren zehaztuko den airetiko linea elektrikoaren zuhaitz-zerrenda eta deribazioak handitzeko: Elgoibar-Lasao 30 kV-ko aireko linea elektrikoa, Elgoibar TA eta Lasao TAren artekoa, eta Floreaga TBA, Construcciones Izarraitz TZ, Loiola TBA, Azkue TA, Ibai-Eder TA eta Lasaoko Industrialderako deribazioak (udalerriak: Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia eta Zestoa).

2.– Baimendu diren instalazio elektrikoetako zuhaitz-zerrenda zabaltzeko proiektua herri-onurakotzat deklaratzea. Aipatutako azaroaren 27ko 54/1997 Lege-

de árboles y prohibida, en todo caso, la construcción de edificios e instalaciones industriales. En dicha zona, se autoriza la plantación de huertas, viñedos y arbolado de bajo porte, entendiendo por éste último, aquellas especies que en su crecimiento máximo se encuentren a 5 metros de distancia de los conductores, tanto en horizontal, es decir con las ramas, como en vertical, es decir con la copa.

Visto el Proyecto presentado, firmado por el Ingeniero Técnico Industrial D. Joseba Sáez de Vicuña Díez, colegiado n.º 1686, en el Colegio Oficial de Ingenieros Técnicos Industriales de Álava, visado por el citado Colegio el 07-08-2008, con el n.º 025845.

Vistos la Ley 54/1997, de 27 de noviembre (BOE de 28-11-1997), del Sector Eléctrico, el Decreto 282/2002, de 3 de diciembre (BOPV de 23-12-2002), por el que se regulan los procedimientos de autorización administrativa para la construcción, modificación, explotación, transmisión y cierre de las instalaciones de producción, transporte y distribución de energía eléctrica, así como de las acometidas, líneas directas e instalaciones de conexión de consumidores, el Decreto 3151/1968 de 28 de noviembre (BOE de 27-12-1968), Reglamento de líneas eléctricas aéreas de alta tensión, el Reglamento de la Ley de Expropiación Forzosa de 26 de abril de 1957 (BOE de 20-06-1957) y la Resolución de 29 de enero de 2007, del Director de Energía y Minas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo (BOPV de 04-05-2007).

Considerando que la empresa peticionaria Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U., ha contestado cumplidamente a las alegaciones vertidas por los afectados.

El Director de Energía y Minas, en virtud de las atribuciones conferidas en el Decreto 514/2009, de 22 de septiembre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio, y Turismo (BOPV de 24-09-2009).

RESUELVE:

1.– Autorizar a la empresa Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. la instalación y aprobar el Proyecto de ejecución de la Ampliación de la Faja de Arbolado de la línea eléctrica aérea a 30 kV Elgoibar-Lasao, entre la S.T. Elgoibar y la S.T. Lasao y las derivaciones a S.T.R. Floreaga, a C.T. Construcciones Izarraitz, a S.T.R. Loiola, a S.T. Azkue, a S.T. Ibai-Eder y a Lasaoko Industrialdea, en los términos municipales de Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia y Zestoa.

2.– Declarar en concreto la utilidad pública de la ampliación de la faja de arbolado en las instalaciones eléctricas que se autorizan, llevando implícita esta de-

aren 54. artikuluan xedatutakoari jarraiki, deklarazio horrek, eraginpean hartutako ondasunak okupatzea eta eskubideak eskuratzea dakar eta, horrenbestez, horiek premiaz okupatuko dira eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluak Premiazko Okupazioa deklaratzeko ezartzen dituen ondorioak zehaztuko dira, Lege horren 53. artikuluaren erregistro-ondorioekin.

Ebazpen hau abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan (2002-12-23ko EHAA) xedatutakoarekin eta ondoko baldintza orokor hauekin bat ematen da:

1) Onartutako proiektuarekin bat egin beharko dira instalazioak, eta, halakorik bada, eskatzen eta baimentzen diren aldaketekin bat.

2) Martxan jartzeko epea urtebetekoa izango da, eragindako finkak okupatzeko Akta egiten denetik aurrera.

3) Instalazioen titularrak lanak amaitzen direnean horren berri eman beharko dio lurralde-bulegoari, behin betiko egiaztatu eta martxan jartzeko akta eman dezan.

4) Obrak egiteko beharrezko diren udal edo probintzien eskumenpeko baimen edo lizentziak eta gainerakoenak errespetaturik, ematen da ebazpen hau, eta ez du salbuesten eskatzailea haiek eskuratzeko obligaziotik. Halaber, inoren eskubideei kalterik egin gabe eta jabetza-eskubideari eutsiz ematen da.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Industria eta Energia Sailburuordetzaren aurrean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean, hala agintzen baita 4/1999 Legean. Lege horrek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 8a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
OSKAR ZABALA RABADÁN.

claración, a tenor de lo dispuesto en el artículo 54 de la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, la necesidad de ocupación de los bienes o adquisición de los derechos afectados, e implicando la urgente ocupación de los mismos y determinando las consecuencias que para la Declaración de Urgente Ocupación dispone el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa, de 16 de diciembre de 1954, con los efectos registrales del artículo 53 de la misma.

Esta resolución se concede de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 282/2002 de 3 de diciembre (BOPV de 23-12-2002) y con las condiciones generales siguientes:

1) Las instalaciones deberán realizarse de acuerdo con el proyecto aprobado, con las variaciones que, en su caso, se soliciten y autoricen.

2) El plazo de puesta en marcha será de un año, contado a partir de la fecha del acta de ocupación de las fincas afectadas.

3) El titular de las instalaciones dará cuenta de la terminación de las obras a esta Oficina Territorial, a efectos de reconocimiento definitivo y la extensión del acta de puesta en marcha.

4) La presente Resolución se otorga sin perjuicio e independientemente de las autorizaciones, licencias o permisos de competencia municipal, provincial y otros necesarios para la realización de las obras, no relevándose al peticionario de la obligación de obtener las mismas. Así mismo, se concede sin perjuicio de posibles derechos de terceros y dejando a salvo el derecho de propiedad.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Industria y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la notificación de esta Resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de marzo de 2010.

El Director de Energía y Minas,
OSKAR ZABALA RABADÁN.